

# Sarrerak, euskaraz

**E**bidentea den zerbait esateko arrisku handiarekin erabaki dut anekdota bat kontatzea. Euskal Herriari Martetik begiratzeko konplexua daukat batzuetan, eta ebidentea zer den eta zer ez den jakiteko gaitasuna galtzen dut. Hor doa, badaezpada.

Euskal Herrian izan naiz (1) eta Osasun Zentrora joan behar izan dut, pediarraren kontsultara. Harreran ederto hartu naute. Erdaraz. Hango sisteman ez gaudenez, tarte bat zuen lehen pediarrarekin eman dit hitzordua harrerakoak. Kontsultara sartu garenean, nire buruko soziologoa aktibatu dut. Segundo bat baino gutxiago daukat diagnostikoa egiteko: berak ez dit niri euskaraz egingo baina, adinagatik, (nire adin ingurukoa) euskaraz jakiteko aukerak handiagoak dira ez jakitekoak baino. Beraz, nik egingo diot. Euskaraz al dakien galdetuz. “Bueno, bai”, erantzun dit. Eta euskaraz artatu gaitu (honek ere, ederto). Ezin dut jakin, baina baliteke pediarrak lehenengoz lanean euskara erabili izana. Beharbada –eta hipotesi horrek pentsarazi dit zenbateraino diren kontu batzuk ebidenteekin ez diolako aurretik halakorik eskatu. Eta eskatu diodanean, esan nezake, zergatik ez: horretara animatu edo horretarako aukera eman. Ez dut berarengan ziurtasun faltarik nabaritu, ez lotsarik hizkuntzaren mailagatik. Nik eskertu egin diot (2). Baliteke, hori ere ezin jakin, kontsultatik atera garenean, egindako ahaleginagatik pediarrari hasperen bat atera izana. Baliteke harro sentitu izana. Agian, eszitazio bat ere sentitu du. Performance bat egin ondoren izaten diren sentsazioak.

Nire kasuan, aitortu behar dut seimeen egoera linguistikoak behartu egin nauela, eta bide batez ohitu nauela, nire inguru hurbiletik kanpo ere euskara eskatzera: erantzun oso positiboekin. Bilboko Metroan ez dut inoiz



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

zortetik izan. Baina bai hondartzako sorosleekin, urgentzietako mediku eta erizaineekin, aparkalekuko leihatilako langilearekin, zinemako txartel saltzaileekin...

Gauden momentuan, goian kontatutako eszenaren antzeko batek segundo-ro Euskal Herriko mila txokotan errepikatzen egon beharko luke. Urteetako hizkuntza politikak heldu dira dagoeneko horretarako beharrezkoak diren eszenatokiak sortzera (Euskal Autonomia Erakudean). Hizkuntza politika birplanteatu, zabaldu, perfektionatu beharko da. Egongo da horretaz nor arduratu. Baina egunerokoaren protagonistak gu gara. Jende askok ikasi du euskaraz, eta orain, erabiltzen dugun gutxiengoari dagokigu ulertzen duen eta hobeto edo txartoago dakien gehiengo aktibatzea. Halako eszenak biral bihurtu egin behar dira. Antzekoak, bariazioekin.

Ez nator –Martetik– esatera horrekin dena konponduta legokeela. Nik esaten dudana ebidenteegia izango da agian: komunikazio eredu iraultzeko, buru barruan klik egin behar duela euskaldun izateko kontzientzia eta nahia duenak. (EAEn) ez du borroka handirik egin beharko, ez du tentsio handirik bizi beharko. “Gehiengo” hitzak aktibatzen duen klik txiki bat buru barruan. Hor kanpoan badaude dagoeneko baldintza nahikoak nonahi eszenatokiak eraikitzeko. Antzoki handiak bete ahal izateko, lehenengo, jendea antzerkira zaletu beharra baitago.

1) Algortan. Beraz: Bilbo Handia, Bizkaia (EAE).

2) Gure kasuan, gainera, pediatria euskaraz moldatzeko gai izan ez balitz, semeak ulertzen ez duen hizkuntza batean ariko litzateke berbaz. Hori bizi izan dut nik umetan, artean gaztelanariarik ez nekiela, pediarrak erdaraz egitean. Baina hortxe dago kokka: bi belaunaldi ezberdin gara. ■